# Proceso Mondragon Unibertsitatea

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

| PARTE HARTZEKO MOTIBAZIO EDO ARRAZOIAK | PARTE **EZ** HARTZEKO MOTIBAZIO EDO ARRAZOIAK |
|---|---|
| → Guk esandakoa kontutan hartzen denean, esandakoak zerbaitetarako balioko duela ikusten dugunean hartzen dugu parte.<br><br>→ Identifikatuta sentitzen garen arazoak landu eta konponbidea bilatzea helburu duten taldeetan parte hartzen dugu, esan bezala, guri eragiten diguten arazoek mugitzen gaituzte parte hartzera | → Ez dugu parte hartzen gazteentzat bideratuak ez diren ekintzetan, gazteekiko urruti badaude edo gazteak ez badituzte kontuan hartzen. Gazteekiko gertutasuna izatea asko baloratzen dugu.<br><br>→ Esan behar da, hala ere, pasotismoa oso orokorra dela, "konponduko du arazoa beste norbaitek nire ordez"<br><br>→ Pertsonaren interesek eragin zuzena dute leku batean parte hartu edo ez parte hartzerakoan. |

| ZEIN EKINTZA MOTATAN PARTE HARTUKO ZENUKETE? | ZEIN EKINTZA MOTATAN EZ ZENUKETE PARTE HARTUKO? |
|---|---|
| → Gazteoi zuzenean eragiten duten gauzetan hartzen dugu parte, adibidez, kirolean, aisialdian, batzuk lan-kooperatiboetan … azken batean, oso garrantzitsua da taldean identifikatuta sentitzea.<br><br>→ Lekuaren eta gazte perfilaren arabera, badira gazte batzuk politikan eta gazte mugimenduetan parte hartzen dutenak, baina normalean testuinguruak araberakoa da hori. | → Gazteen interesekoak edo hobeto esanda, gazteetatik "urruti" geratzen diren taldeetan ez dugu parte hartzen. Adibidez, zahartzaroko kontuekin, etxebizitza kontuekin (egia da hau ikaslearen egoeraren arabera ez dela berdina, ez baita gauza bera pisu bat konpartitzen egotea, etxean familiarekin bizitzea edo erresidentzia batean egotea), lan-murrizketak, pentsioak … |